

Ongintza-elkarteei diru-laguntzak emateko oinarriak onartzea. 2014 urtea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hamalauko maiatzaren hogeita seian egin zuen bileran, honako oinarriak onartu zituen:

ONGINTZA-ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK (2014)

1.- Diru-laguntzaren xedea.

Diruz lagunduko dira ongintza-elkarteen mantenimendurako edo euren jarduerak burutzeko egin behar diren gastuak. Gastu horiek aurreko urte naturalekoak izango dira.

2.- Elkarte onuradunak

Diru-laguntza hauen elkarte onuradunak izan litezke irabazi-asmorik gabeko elkarteak, Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza edukita, gaixoei, ezinduei edo beharrian larrian dauden pertsonen laguntza dutenak helburu.

3.- Elkarte onuradunen eskakizunak

Onuradunek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- Elkarte gisa eratu egotea, legeak eskatzen duen bezala.
- Zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta edukitzea.
- Lehenago jasotako diru-laguntzak zertan erabili dituzten behar bezala justifikatu izana Udalari.
- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan agertzen diren baldintzak betetzea (aurrerantzean DLO).
- Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, ez dira onartuko sexua arrazoi dela-eta funtzionamendu edo jarduera baztertzailerak duten pertsonak, erakundeak edo elkarteak.

4.- Eskaerak aurkezteko modua

Oinarri hauen eranskin modura datorren eredu ofizialean aurkeztuko dira eskaerak.

Eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira edo Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren edozein organotan eta han agertzen diren bideak baliatuz.

Honako agiri hauek aurkeztuko dira eskaerarekin batera:

- Elkartearen eraketa-ziurtagiria, legeak eskatzen dituen eskakizunak bete beharko dituelarik.
- Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta edukitzearen aitortpena, elkarteko dagokion organoak sinatua.
- Diru-laguntza eskaera, elkartearen ordezkariak sinatua.
- Aurreko urte naturalean egindako jardueren txostena, non agertuko baitira sarrerak eta gastuak zehaztuta.
- Diru-laguntza kobratzeko eman den kontu korrontearen titularitatearen ziurtagiria, bankuak emandakoa.

5.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak 30 egun naturaleko epean aurkeztuko dira, oinarri hauek argitaratzen direnetik kontatzen hasita.

6.- Egilesteko prozedura

Egilesteko prozedura norgehiagoka izango da.

DLO-ren I. tituluan agertzen diren diru-laguntzak egilesteko prozedura administratiboaren faseak jarraitu beharko dira horretako.

7.- Egilesteko irizpideak

Diru-laguntzak banatzeko honakoak baloratuko dira:

7.1.- Jarduerak Valle de Trápaga-Trapagarango udalerriaren biztanlerian duten eragina. Udalerrian erroldaturiko zenbat bazkide dituen edota erroldaturiko zenbatek jaso duen elkartearen aldetiko laguntza edo aholkularitza baloratuko da

Bazkideen edo lagunduriko edo aholkaturiko pertsonen kopurua

5 edo gutxiago..... 5 puntu

6 eta 10 bitartean..... 10 puntu

11 eta 15 bitartean..... 15 puntu

16 edo gehiago 20 puntu

7.2.- Gizarte Ongizate eta Berdintasunerako sailarekin zein neurritan kolaboratzen duten, hau da, gizarte zerbitzuetatik bideraturiko zenbat kasu artatzen dituzten

Kasu bideratuak noizbehinka artatzea 40 puntu

Kasu bideratuak azturaz artatzea 70 puntu

7.3.- Euskararen erabilera balioztatuko da jardueretan

Eskaera

Eskaera osoa edo haren zatirik handiena..... 10 puntu

Eskaeraren zati txikiena 5 puntu

WEB gunea 5 puntu

G.O. eta Berdintasun Sailarekiko beste jarduera batzuk..... 5 puntu

8.- Organo eskudunak

Gizarte Ongizate eta Berdintasuneko Sailak, aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, diru-laguntzen esleipena proposatuko dio Informazio Batzordeari, aurreko atalean aipatzen diren irizpideen arabera.

Erakunde desberdinei diru-laguntzak ematea erabakiko duen organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

9.- Ebazpena jakinarazteko epea

Diru-laguntza ematea ebazten denetik 15 eguneko epean jakinaraziko zaie elkarte onuradunei.

10.- Justifikatzeko epea eta modua

Behin jakinarazita zein izango den emango zaion diru-laguntza, elkarte onuradunak 60 egun naturaleko epea edukiko du gastuak justifikatzeko.

Gastuak era honetara justifikatuko dira:

- Aurreko ekitaldiko jardueren txostenean islaturiko gastu bat izan beharko da
- Fakturak baino ez dira onartuko gastuak justifikatzeko, eta honako datuak eduki beharko dituzte:

- Enpresaburuaren IFZa
- Enpresaburuaren izena
- Bezeroaren IFZa
- Bezeroaren izena
- Operazioaren deskribapena
- Zenbateko garbia, aplikaturiko BEZ mota
- Faktura zenbakia
- Faktura egin den eguna

11.- Diru-laguntzaren ordainketa

Diru-laguntza onartzen den unean lehenengo ordainketa egingo da, diru-laguntzaren % 70aren bestekoa, alegia. Gastuak justifikatu ondoren onartutako kopuruaren gainerakoa ordainduko da beti ere gastuen justifikazioa zuzena bada.

12.- Inguruabarren aldaketa

Diru-laguntza jasotzeko inguruabarrak nabarmenki aldatzen badira, ebazpena aldarazi daiteke.

13.- Beste diru-laguntza edo sarrerekiko bateragarritasuna

Emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako lortu daitezkeen beste diru-laguntza eta sarrera batzuekin.

Lortutako beste sarrera batzuk gehi udalaren diru-laguntzak ez dute inoiz jardueraren gastu osoa gaindituko.

14.- Araudi erregulatzailerak

Oinarri hauetan ez ezik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera arautuko dira diru-laguntzak. Lege hori udaleko diru-bilketa sailean eskura daiteke.

15.- Elkarte onuradunen betebeharrak

Onuradunaren betebeharrak dira:

- Elkartearen araudi erregulatzailerak ezartzen dituen betebeharrak betetzea.
- Diru-laguntza jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela justifikatzea.
- Finantzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketapean jarriko da eta behar beste informazio emango du jarduketara horiek burutzeko.
- Egilespen proposamena eman baino lehen egiaztatuko du zergak eta Gizarte Segurantzarekiko gastuak ordainduta dauzkala.
- Kontabilitate-liburuak edukiko ditu eta kasu bakoitzean elkarte onuradunari aplikatu dakioken legeriak eskatzen dituen gainontzeko agiriak.
- Jasotako fondoak zertan erabili diren justifikatzeko agiriak gordetzea.

- Jasotako fondoak itzultzea, Diru-laguntzen Lege orokorraren 37 artikuluan aipatzen diren zioetako bat gertatuz gero.
- Elkarteari buruzko informazioa ematea Gizarte Ongizate Sailari, egokitzat jotzen diren deribazioak egiteko.
- Eskuko programa, kartel, argazki, argitarapen edo programa garatzeko ateratzen den beste edozelako agiri grafikoetan berariaz aipatuko da Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren babesa, ikusteko moduko udalaren logotipoa ipiniz, diru-laguntzaren zenbatekoaren arabera, alegia.
- Ekintzen argitarapena Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egingo da.

ERANSKINA: ONGINTZA ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

ERAKUNDEAREN DATUAK

ESKAERA EGITEN DUEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOAREN IZENA

.....
 ELKARTEAREN ERREGISTRO ZENBAKIAI.F.K.....
 HELBIDESOZIALA (kalea edo plaza).....
 HERRIA.....
 PROBINTZIA.....
 TELEFONOA.....
 FAXA.....

BANKU-ERAKUNDEA.....
SUKURTSALA..... KONTU ZENBAKIA.....

ESKAERA EGITEN DUEN PERTSONA JURIDIKOAREN ORDEZKARIA
IZEN-ABIZENAK.....
KARGUA.....
N.A.N.....
HELBIDEA.....
TELEFONOA.....

TOKIA.....DATA.....

SINADURA

ERAKUNDEAREN ZIGILUA

Aitortzen du diru-laguntza hauen oinarri arautzaileak ezagutzen dituela eta elkartearen izenean eskatzen du deitutako egilespen-prozeduran parte hartzea.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2014ko ekainaren 3an.

ALKATEA
Xabier Cuéllar Cuadra